

BIOEF-BERRIKUNTZA ETA IKERKETA SANITARIOKO EUSKAL FUNDAZIOAK GAIXOTASUN ARRAROAREN INGURUKO IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK EMATEKO EGINDAKO DEIALDIA

Deialdiaren helburua:

Laguntzak jaso ahal izango dituzte gaixotasun arraroetan ikerketa biomedikoko proiektu berriek, aurretik kanpoko finantzazioa jaso ez dutenek.

Onuradunak:

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden I+Gko zentro publikoak eta pribatuak.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- Harreman funtzionariala, estatutarioa edo kontratu bidezkoa izatea UPV/EHUrekin.
- Deialdi honetara ikertzaile nagusiak soilik aurkeztu ahalko du proiektu bat

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak gauzatu behar den proiektu osoan zehar egiaztatu beharko du Unibertsitatearekin duen harreman funtzionarial, estatutario edo kontratu bidezkoa.

Ikerketa taldeko kideek eskaera aurkezteko unean bakarrik egiaztatu beharko dute harreman hori.

Laguntza gauzatzen den bitartean UPV/EHUrekin duten harremana amaitzen zaien kideek ezingo dute gasturik egotzi egoera horrek dirauen bitartean. Ikertzaile nagusiaren ardura izango da laguntza gauzatzen den bitartean izaten diren bajen berri Ikerketaren arloko Errektoreordetzari ematea.

Laguntzak:

226.835,80 euro emango dira.

Proiektuen iraupena:

Gutxienez 2 urtekoa eta gehienez 3 urtekoa.

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaerak tramitatuko dira [aplikazio informatikoaren](#) bitartez edo paperean.

Ikertzaile nagusiak, laguntzaileek eta legezko ordezkariak sinatutako eskaerak paperean bidaliko dira honako helbide honetara: Azkue erronda 1, 48902 Barakaldo, Bizkaia.

Ikertzaile nagusiaren ardura izango da eskaera dagokion bezala eta epe barruan aurkeztea eta aurkeztutako agiri guztien kopia bana formatu elektronikoa, pdf-n, eta, UPV/EHUkoak ez diren laguntzaileen kasuan, jatorriko zentroaren baimenaren agiri originala Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidaltzea.

Eshaerak aurkezteko epea:
2016ko azaroaren 14ra arte, astelehena.

**UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN SINADURA
LORTZEKO PROZEDURA:**

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	TRAMITEA
2016eko urriak 25	Ikertzaile nagusia	Dokumentazioa bidaltzea igz.deialdiak@ehu.eus helbidera, "Ikerketa taldea" azter dadin
2016eko azaroak 2	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Azterketaren emaitza jakinaraztea
2016eko azaroak 7 Egun horretatik aurrera, ezin izango da bermatu legezko ordezkariaren abala eduki behar duen dokumentazioa epe barruan bidaliko denik.	Ikertzaile nagusia	I. eranskina (eskaera) bidaltzea, ikerketa taldeko kide guztiek eskuz sinatuta, jakinarazitako azterketaren arabera
2016eko azaroak 10	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Errektoreordeak sinatutako dokumentazioa bidaltzea (I. eranskina, V. eranskina eta Bideragarritasun Txostena)

OHARRA: UPV/EHUkoak ez diren laguntzaileen kasuan ezinbestekoa da jatorriko zentroaren baimena.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eredu normalizatuen arabera

- a) Proektua eskatzeko inprimakia (I Eranskina)
- b) Ikerketa proiektuaren memoria, eredu normalizatuan (II. eranskina), hala badagokio, parte hartzen duenaren entitate bakoitzaren informazioarekin batera (II.a eta II.b eranskinak). Ingelesez ere onartuko da proiektuaren memoria.
- c) Ikertzaile nagusiaren curriculum vitae (III. eranskina) eredu normalizatuan (Osasun Sailaren eta Carlos III Osasun Institutuaren

curriculumerako ereduak eta FECYT-Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren curriculum vitae normalizatuaren ereduak onartuko dira).

d) Proiektua proposatu duen ikerketa taldearen historia zientifiko eta teknikoaren memoria (IV. eranskina), eredu normalizatua.

e) Ikertzaile nagusia kide duen zentroko Ikerketa Batzordearen txostena, proiektuaren bideragarritasuna bermatzen duena.

f) Ikertzaile nagusia kide duen zentroko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren txostena, beharrezkoa denean.

g) Ikerketarako Euskal Biobankuaren Ziurtagiria, proiektuan giza jatorria duten lagin biologikoak erabili behar badira, ikertzaile nagusiak Biobankuari deialdi honetan eskatutako diru-laguntzaren xede izango den proiekturako lagin biologikoak eman eta/edo lagatzea eskatu izana ziurtatzen duena.

e) Arduradunaren adierazpena (V. eranskina).

Informazio gehiago:

<http://www.bioef.org/eu/jarduera/osasun-arloko-profesionalen-arreta/>

Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioarekin harremanetan jartzeko:

BEC (Bilbao Exhibition Centre) dorrea
Azkue erronda 1, 48902 Barakaldo
Tel.: 94.453.85.00
Faxa: 94.453.04.65

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 94 601 80 08
Faxa: 94 601 58 56
Helbide elektronikoa: igz.deialdiak@ehu.eus